

Hego-haizea lagun festarik festa



Argazkia: Karmele Zoilo



ERAKUSKETA ALDAKETA

h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 943 88 46 41

**BESTE EDOZEIN EROSKETETAN ERE BEHERAPEN
INTERESGARRIAK ORAIN.
KALITATEA PREZIORIK ONENEAN**



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

943 16 20 16

ORDIZIA

Zorionak!

Denok gainditu duzuelako PET
azterketa oso emaitza onekin

Ainitze Etxeberria

Ongi

Amaia Valdivielso

Bikain

Gorka Argaiz

Bikain

Itziar Albisu

Bikain

Izaskun Urdangarin

Bikain

Mirari Sarasola

Ongi

Ingelera eta Frantseseko beharrei
erantzuteko gaude.



Zuretzat ere
badago tokia

MATRIKULA
DOHAINIK



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa
20240 Ordizia

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

http://www.ordizia.net

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estiñu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastortza,
Eduardo Albizu, Inaki Ugalde, Sa-
roi Jauregi, Inaki Gurrutxaga,
Mari Flor Mendizabal, Aitziber
Murua, Agurtzane Bikuña, Gabi-
no Murua, Idoia Bueno, Ekaitz
Goikoetxea eta Rufino Murua.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Lazkao Txikiren bertso antologia
Xabier Amurizaren eskutik

Lazkaomendiko Joxe Migel Iztueta Lazkao-Txiki bertsolariaren bertsoen antologia aurkeztu zuen Xabier Amurizak, irailaren 24an, Lazkaomendin. "Lazkao Txikik bat-batean botatako perlen bilduma egiten aha-legindu" da Amuriza. Hunkituta azaldu zen bertsolari bizkaitarra, Lazkao Txikik bere bertsoetan aipaturiko elementuak bere begiz ikusteko aukera izan baitzituen. "Nire bertsolari bizitzako momenturik hunkigarrienetakoa da hau", esan zuen.

Ehun bertso aukeratu ditu Amurizak. 300 bertsoetatik egindako aukeraketa izan da. 'Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina' jarri dio izena bertso bilduma honi. Bat-batean botatako bertsoak dira guztiak. "Bat-bate-

an botatako bertsoak haizeak eramaten ditu, eta ondo eramanda daude. Bat-batean gertatzen diren perlak jaso eta atera behar dira, eta hori izan da nire lana. Genio baten balio inprobisatzailea biltzea izan da helburua. Altxor pasakorrak jaso behar dira, hau da, perlak perlen ondoan gelditu behar dira", aipatu zuen Amurizak.

Antologia horrekin Lazkao Txikien izaera eta bertsogintzaren aurpegi ezberdinak agerian geldi zitezela bilatu du Amurizak. Bere buruaz kantatutakok, sentimenduzkoak eta umorezko bertsoak biltzen dira, gidotxo bat lagun duela.


Lazkaomendiko Lartxai elkartean egin zen lehen saioa eta ehun bat lagun bildu ziren bertan.

BOTA BERTSOA



Aitziber Garmendia

Santa Fe jaiak



**Doinua: zortziko
nagusiko edozein.**

Iritsi dira Santa Fe jaiak ezinegonagari. Iritsi ere, haize hotza ta euri plautada ugari; honen ondoan sagardoa ta mondeju on bat afari hotzak ez dio ezer egiten barrena bero dunari.

Egunez festa, ta gauzez juerga, urtero egin ohi denez. Norbera bere saltsan sarturik nekatzeko astirik ez. Herri txikia izanagatik denok sartuko garenez ba datorrenak festa gosea ekar dezala mesedez.

**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak


Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ez galdu
aukera
hau!

Euskaraz irakurri?



Uste duzun baino errazagoa da.

Euskaraz irakurtzen trebatzeko
50 orduko ikastaro berezia
eta Egunkariaren 3 hilabeteko harpidetza

12.000 pezetaren truke

Egunkaria



Galdetu zure herriko euskaltegian

TXANDAKA

Santafetan

Festa-antolatzaileek propaganda ugari egin izan dute, beti, adin guztietako jendearentzat prestatu dituztela festak esanez. Ez dugu eskubiderik beren ahalegina ukatzeko. Ahaleginak ahalegin, ordea, oso neurri txikian izaten dira festak guztientzako modukoak; ez antolatzaileek errurik dutelako, baizik eta adin batean, ezer antolatu ezta ere, dena festa bihurtzen delako, eta bestean, antolatzen saiatuagatik, nekeza delako festaz neurri berean gozatzea.

Nik, behintzat, oso desberdin ikusten ditut txikitako festak eta oraingoak. Eta nire aldean diferente ikusiko ditu, seguru asko, laurogei urteko amona edo aitona. Txikitan, ilusioa, presa eta urduritasuna izaten ziren gure ezaugarri psikologikoak, festa aurrean. Iraila erdian bueltatuz gero, Santafetako behi larrea izendatu behar izaten zen; izendatu eta hazten utzi, gero ijara erraz bete zezaten, gu, kalera joateko, azkar libra gintez.

Ez dut ulertzen nolaz egiten zigun hainbesteko ilusioa Eulali gozo-saltzaileari karamelo zorro bat erosi, erroskilatan jokatu eta tiropitxoian karabinarekin balin batzuk botatzeak. Nik geroztik, ezta festak antolatzen parte hartu izan dudanetan ere, ez dut inoiz izan hainbesteko ilusiorik. Orduan, festak jatea bezain beharrezkoak ziren guretzat; orain, urtean behin derrigorrez irentsi beharreko zerbait, asko eta askorentzat. Bidenabar esan dezagun benetako festak, ezbaierik gabe, programan begiratu eta Udaletxean zein alderdi dagoen antzematen ez zaienak eta bestelako gauza batzuekin nahasteko arriskurik gabeak direla. Zaila! Festek bestela ere, noski, xarma galdu egin dute. Ba al dakizue zenbat ugaldut den, gure txiki garaitik hona, aisialdiari eskaintzen diogun denbora? Asteburuetakoa irteera eta oporrek kendu dizkiete lekua eta protagonismoa urteko festei. Bestalde, uniformizatu egin dira festa guztiak, beste mila ekintza klase-rekin nahastu, denak "mobida" bihurtu, politika kutsuz jantzi.

Nik gauza bat jakingo nuke pozik: ea gaurko umeek guk hauen adinean adina gozatzen ote duten festetan.

Rufino Iraola



Tenporetan sinisten al duzu?


Gabriel Soutollo 64 urte, pentsionista Zaldibiakoa

Oso zaila da hemen eguraldia asmatzea. Ez dut sinisten tenporetan eta iragarpenetan.



Ramon Gorostizu 63 urte, pentsionista zaldibitarra

Sinisten dut. Eguraldiaren nondik norako orokorra tenporek adierazten dute.



Gorosti Armendariz 24 urte, langilea zaldibitarra

Ez dakit sinisten dudana ala ez, baina zaharrek sinisten badute zerbait izango da.



OSKARBI
OINETAKOAK

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

GOIERRI AKADEMIA

INGELERA
- DBH, batxilergo, moduloak...
UNIBERTSITARIENTZAT
- Kimika, ingenieritza, turismo, magisteritza, informatika...
KOMERTZIALA
- Azterketen prestaketa. Cámara de Comercio Británica.

✓ Matematika, Fisika-Kimika, Tecnología elektrikoa
✓ Lengua-Euskara

MARRAZKETA TEKNIKOAK
- Mekanika
- Galdaragintza (desarrolloak, plano interpretazioak).
- Batxilerrato-Unibertsitarioak.

Kale Nagusia, 32 BEASAIN
943 888 203

Zorion Insaustiren laguntzaz
Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka
Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
943 88 13 37
ORDIZIA

oreka

'Hotel room'

Cesc Gay - Daniel Gimelberg (Espainia-Argentina, 19978)

Bost pertsonaia desberdin, patuak New Yorkeko hotel zahar batera gidatuak, gela berera, egun berean, ordu berean. Kasualitatearen, zoriaren ondorioz... ala ez?... gertakizunak aurrera doaz, baina ez bata bestearen atzetik (errazegia litza-teke), denbora tarte berean baizik, 426. gelan, uztailearen 4an. Cesc Gay eta Daniel Gimelbergen debuta izaki, gidoilari, aktore profesional eta dekoratu handientzako aurrekonturik gabeko film hau errodatzea lortu zuten, haietako baten hoteleko gela batean hasieratik bukaera arte, irudimen handiz eta zoriaren laguntza eskergaz, zerikusirik ez duten istorio batzuk leku eta une berean elkar nahasteko; zenbait pasartetan Marx Anaien eta Sopa de Ganso filmeko hoteleko eszena zoragarria bezain kaotikoa etor dakiguke gogora, hango nahaste-borras-tea eta gelako sartu-irten amaigabeak irudikatuz. Izan ere, kasualitateak kaos itxura izan dezake, hori bai, milimetrora neurtua...

ZINEA



GOIENIZ:

Urriak 7, 'Hotel room', 21:00etan Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Episodio I'. Ostirala 1: 22:15; larunbata 2: 19:30 - 22:15; igandea 3: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 4: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Episodio I'. Ostirala 1: 22:15; larunbata 2: 19:30 - 22:15; igandea 3: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 4: 19:30.

HITZALDIAK

ORDIZIA:

Urriak 4, 'Osasuna orokortasunez ulertzen' hitzaldia, Ignazio Mendiguren medikuaren eskutik, Jubilatuen etxean, 18:00etan.

BESTELAKOAK

GAINTZA:

Urriak 2, Takolo, Pirritx eta Porrotx, 17:00etan.

ORDIZIA:

Urriak 3, 'Extremadura Eguna' egunean zehar. Euskal Herriko eta Extremadurako produktuak...

BERTSOLARIAK

ZALDIBIA:

Urriak 2, Gipuzkoako Herri arteko bertsolari txapelketa: Goierri-Zaldibia, Goierri-Ordiziaren aurka, Gaztelu elkartean, 20:30ean.

MUSIKA

BEASAIN:

Urriak 6, Lerid Setrakov errusiarraren akordeoi emanaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean.

ZALDIBIA:

Urriak 6, Kristina eta Amaia, 23:30ean.

Urriak 9, Xitoak, 24:00etan.

Urriak 10, Etzakit, 24:00etan.

Urriak 11, Araujo y los mecanicos, Xuia eta Berri Txarrak taldeen kontzertua, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urriaren 1etik 22ra, Victoria Monteolivo argentinarren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Urriaren 1etik 10era, Victoria Monteolivo argentinarren pintura erakusketa, Usurbe Antzokian.

Eskulan ikastaroa Ormaiztegin

Urriaren 5ean hasiko da eskulan ikastaroa Ormaiztegin. Asteartetan izango da ikastaroa, 16:30etik 18:30era. Karmen Soto izango da irakaslea eta bolilloak, gurutze puntua, bainekak... erakutsiko dira. Izena emateko nahikoa da urriaren 5ean, ikastaro ordurako liburutegian azaltzea edo Karmen Sotori berari esatea.

Urriaren zehar Musika eta pintura erakusketa, Zinema tabernan: abeslari edo musikariek beraiek margotu zuten diska azalen erakusketa.

ORDIZIA:

Irailaren 30era arte, Jexux Jauregiren eskultura erakusketa, Barrenan.

ZALDIBIA:

Urriaren 5era arte, Narptheid fanxinoteka, Kultur etxean, 17:00etatik 19:30era. Informazio gehiago 17. orrian.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 3, Oretetako Kilmetroetara.

Urriak 10, Arantzazu-Enaitz-Duru.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 3: Hondarribia-Jaizkibel-Erreterria (Kilmetroak).



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz beste

MANDUBIKO BENTAJATETXEA

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriko bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

❑ Etxebizitza salgai Itsasondon. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainuarekin. 689650850.

❑ Neska bat behar da Gastetzen pisua osatzeko. 943180173.

❑ Etxebizitza salgai Zaldibian, Urtesabel auzoan. 5.000.000 pezetan (negoziagarria). 943161072. Mari Tere.

❑ 3 lagun behar dira Leioan pisua osatzeko. 943-883665 - 943524820.

❑ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943-886834.

❑ Etxebizitza salgai Beasainen. Gela bat negoziariko prestatua. Ganbararekin. Egoera onean. 943883180.

❑ Bi pertsona behar dira Leioan pisua osatzeko. 943886904. Olatz.

❑ Etxebizitza salgai Lazkaon, 3 logela, sukalde-egongela, 2 terraza, ganbara eta bainuarekin. 943161357.

❑ Neska bat behar da Deustun pisua osatzeko. 943887181 edo 943650077.

Salerosketak:

❑ Pastor aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedigreearekin. 696057346.

❑ 'Comanche' kanpin gurdia salgai. Prezio interesgarria. 943885923.

❑ Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

❑ Cady motorra salgai, 20.000 pezetan. Egoera onean. 943162510.

❑ Pigini akordeoi botoiduna (ia berria) salgai. 943465724.

❑ Euskal artzai txakurkumeak salgai. 943801467 - 617213340. Txema Lardizabal.

❑ Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

❑ Peugeot ST 50 zm³ko motorra salgai. 943887041-943160926.

❑ Ford Fiesta autoa, gorria, salgai. 943881938. Karlos. 20:00etatik aurrera deitu.

❑ Cocker hispaniel ingelasa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

Bestelakoak:

❑ Ataun San Gregorioko Sutegi taberna alokatzen da. 943882278. Bezero ziurtatua.

❑ Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 943470001. 17:00etatik 19:00etara deitu, ostegunetan izan ezik.

❑ Segura Futbol Taldeak entrenatzailea behar du. 943801092 (Iñaki Albisu).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia)
943882934.

Urriak 2-3: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa - Ordizia),
943882934.

Urriak 9-10: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39 - Beasain),
943880587.

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

© 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00
Altzagako Udaletxean



GUREA

JANARIAK

GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILOA

Arkupe

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoak
Mantak - Maindreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA

1999-2000 IKASTURTEA
Goierriko akademia
integral bakarra

☎ 943 160 120

Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

HASIERA: IRILAK 6

Irailerako ikastaroak: udako nagiak astindu eta kurtsoa zihurtasunez hasteko

Lehen hezkuntza:

- ✓ Ortografia
- ✓ Irakurketa, idazmena
- ✓ Aho adierazmena
- ✓ Kalkulus, matematika...

Eskola laguntza

- ✓ Maila eta ario guztiak
- ✓ Lehen hezkuntza (6 urtetik aurrera)
- ✓ DBH, DBHO
- ✓ Goi mailako hezkuntza:
 - Unibertsitateak
 - Goi/erdi mailako ziklo formatiboak

DBH / DBHO

- ✓ Ortografia
- ✓ Testu komentaketak
- ✓ Idatzizko adierazmena
- ✓ Ikasketa teknikak...

Kontabilitatea: Eskuz, ordenagailuz

- ✓ Kontabilitates eskuz
- ✓ Contaplus
- ✓ Nominaplus
- ✓ Facturaplus
- ✓ Ordutegi zabalak, talde txikiak

HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK GOIERRITARREN ZERBITZUAN

Lerro hauetatik zuzendaritzakideok zorionak eman nahi dizkizuegu teknikari eta jokalariei prestaketa-lanetan jarri dituzuen gogo eta arduragatik, eta denboraldi osoan indar eta dinamika berberan segi dezazuen, gure agurrik beroena!. Denboraren poderioz landutakoa izaten da garrantzitsua, eta horretarako entrenamenduetara joatea hutsegina gabe eta makaldu gabe lanean etengabe jardutea, funtsezkoa izango delako uste osoa dugu.

Gaur egun, batez ere norgehiagokari eta kirol-arrakastari ematen zaie lehentasuna kirol guztietan, eta, kirol horien artean, futbolari, esate baterako, ia ia era eskusiboan, kirolek dituzten beste hainbat alde on baloratu gabe.

Kirol honen hastapenetan, bi elkarteko edo herriren arteko hurbiltze-ihardunaldiak antolatzen zirenean, beste ekitaldi askoren artean, futbolekin jokatzeko zuten, eta talde irabazleari garaikurrarekin emateaz aparte, honek bere buru-estimua asetzeko lortzen zuen. Hau da, taldeen arteko harremana oinarri zuten garai hartako ihardunaldiak futbola osagarritzat hartzen zuten. Partidu bakoitza bizi eta gozatzen zen bere horretan eta talde bat miresten zen batekin edo besteekin lortutako arrakastagatik.

Kirola profesionalizatzeak edukia aldatzea ekarri du, lehia-esparrura ia ia murriztuz. Kirol guztietan berez ematen den osagarri bat izanik, futbol amateurrean denboran atzean egitea eta kirolak zabal ditzakeen harremana eta kultura bezalako baloreak sartzeko ahalegiak egitea komeni da.

Gogoan hartu behar dugula uste dugu, Euskal Herriko estadio eta herrietan zehar Ordizia ordezkatzeko duten zazpi taldeek, zazpi enbaxada mugikor osatzeko dituztela, eta honek esan nahi du kirol-barrutian eta kanpoaldean, jokalariei, teknikari, zuzendaritzakide eta jarraitzaile guztioi geure gain hartu beharreko erantzukizuna dugula eta bertan

Ordizia Kirol Elkarteak planteamendu estrategikoa

egoten jakin behar dugula

Zergatik ez espedizio-enbaxada horiek baliatu aldian behin txango kulturalak antolatzeko; alegia, beste eskualdeak ezagutzera eta harremanak sendotzera bultzatzeko gaituzten ekitaldiak, bisitaldiak ... e.a. antolatu?.

Beste ikuspegi bat da, eta aurrera eramanez gero, bidaiekin goza eta baliagaitezke pitin bat bada ere; eta beste maila batean, gu geu gogobetetzearekin batera kirol-arrakasta lagundu eta erraztuko lukete seguru asko.

Futbol amateurrean buruzko iritzi edo burutazio hori, gai bat baino ez da, plazaratutako eta plazaratuko diren gaien artean, Ordizia KE-k onartu duen epe ertain eta luzerako estrategiaren barruan, hain zuzen ere. Zuzendaritzak hiru helburu nagusi ditu kirol arloaren inguruan:

- 1. Ordizia Kirol Elkarteak** jokatzeko gaiak gazteak harro sentitzea eta Ordiziako eta Goierriko neska-mutil guztiek futbolekin jokatzeko baldintza minimoak izanda ere, Elkarteko taldeetan jokatzeko aukera izatea. Aurtun, esate baterako, beste bi talde gehiago ditugu denboraldi honetarako (2. mailako kadeteak eta emakume-taldea), hasieran aipatu ditugunak.
- 2. Gazteen lehen taldea** izar izan dadila lortzea, ahalik eta kategoria gorenera iristeko asmoz. Horretarako ezinbestekoa da haur, kadete eta gazte-kategorietako jokalariek Elkartean gelditzea, beste talde batzuetara alde egin gabe, salbuespen bakar batzuk

izan ezik, beti Realera edo antzekoetara, eta azken urteko gazte-taldekoen artean batik bat, ildo honetatik joan baita Realarekin itaundutako hitzarmena. Halaber, herrietako taldeen segimendua egingo dute Realeko teknikariek.

3. Erregionaleko senior kategorian, taldearen orno-muina izango den kirol-talde gizatiarra edukitzea urte batzuetarako. Ordiziak izan duen tradizio eta kirol-mailagatik, kategoriaz igotzen lagunduko diona, eta gure ustez, kategoria horrek Preferentia behar du izan edo gorago ahal bada hobe.

Hori lortzeko, adierazitako estrategiaren oinarria diren ondoko bi puntuak beteko dituela hitz ematen du zuzendaritzak.

Maila handiko teknikari talde bat eratu eta trebatuko dituela, prestakuntza fisikoan eta futbol-teknika mailan zein taldearen eta gizabanakoaren harremanei behar den bezalako erantzuna eskainiz. Futbol eskolaren kontzeptua ahotan dabil gaur egun, eta beste hainbat ikasketetan bezala, irakaslerik hoberenak izatea da garrantzitsua.

Realarekin dagoen hitzarmena atxikitu eta hobetuko duela, eguneroko jardunak aholkatuko duenaren arabera, arestian aipaturiko ildotik.

Bazkide berriak lortzeko kanpaina zabalik

Eta azkenik, aipatu asmoak lortu ahal izateko, Zuzendaritzako Gizarte batzordeak jakinarazten dizue bazkide berriak lortzeko kanpaina zabalik dagoela; beraz, Elkarteari laguntzeko prest zaude ten ordiziar guztioi orri hau betetzeko arren eskatzen dizuegu. Horretarako, zuen datuak idatzi eta helbide honetara bidali: 87 Posta Kutxatila, Ordizia, edo zuzendaritzako kide bati eskura eman.

OKE-ko Zuzendaritza Batzordea


Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

ERREZETA



Arantxa Urteaga
Nazabal erretegia
Zaldibia


PORRU ETA GANBA PASTELA

Osagaiak: 12 porru, 150 gr. ganba, 3 arrautza, litro 1/4 esnegain eta gatz. Saltsarentzako osagaiak: tipula 1, 2 azenario, ganba azalak, porru salda, piper berde erdi bat eta baso erdi bat olio.

Porruak, hosto berde gehienak kendu eta egosi ondo bigundu arte. Bere ura gorde. Ganbak zuritu, arrautzari txurinoa eta gorringoa apartatu. Ondo nahastu gorringoak eta esnegaina. Arrautza zuringoak ondo harrotu eta aurrekoari nahastu. Gatz bota. Molde bat gurinarekin igurtzi eta lehendabizi krema bota, gero porruak eta ganbak, berriro krema moldea bete arte, txandatuaz. Maria bainuan labeaz sartu 175 gradutara, ordu bez gutxi gora-behera.

Saltsa egiteko barazki guztia ondo egin kazuela batean. Olioarekin ganba azalak nahastu eta porru salda ere bai. Murritzten utzi, eta turmix eta txinotik pasatu.

AHOLKUA



Idoia Bueno
Maskota Garden-eko
albaitaria

Hego haizea hasia dugu urriaren atari honetan eta laister hasiko da uso-pasa, ehiztariek horrenbeste espero duten urtaro garaia. Zakurrak lasai egon badira orainarte, laster somatuko dute mendira maizago joan beharko dutela.

Ehiztariak hasiak dira ehize-postuak txukuntzen, eskopetak garbitzen, zakur gazteek ikasia dute beternoengandik presa nola kobratu, baina... benetan zakurrak ongi prest ote ditugu?

● Zakur jabe orok berea duen zakurra bizi den udalerrian erroldaturik eduki behar du eta behar bezala identifikatuta, zakurrentzako mikrotxipa delarik identifikazio metodoa. Mikrotxipa indizio baten bidez jartzen zaio zakurrari eta betirako izaten da. Mikrotxipean barra-kode bat doa, zenbakiz eta letraz osatua, ezberdina zakur bakoitzarentzat. Esan dezakegu za-

Zakurren osasun prestaketa ehizerako

kurren N.A.N.-a dela. Mikrotxipa beharrezkoa da Hego Euskal Herrian.

● Komeni da zakurrak txertatuak edukitzea ehiza denboraldia hasterako. Gure zakurra osasuntsu ikusi dezakegu. Gure zakurra urtean zehar etxe ingurura mugatua egon da eta beste zakurrekin izaniko kontaktoa minimoa izan da. Baina ehize denboran zakur asko pilatuko da leku mugatu batean, gure zakurra beste askorekin kontaktoan izango da, eta nola jakin beste zakurrak gaitzen transmisore ez ote diren? Komenigarria da beraz gure zakurrak txertatzea gaitzarekin kontaktoan gaixotu ez daitezen eta ustegabekorik izan ez dezagun.

● Txertatu aurretik desparasitatuko ditugu. Komenigarria da urtean 3-4 hilabetero zakurrak desparasitate. Zakurrak gero ehiza denboraldia amaitzean eta txabolara sartzean ere desparasitatuko ditugu.

● Komeni da gure zakurrari bai garrapata eta arkakuxoen kontrako tratamendua ematea, bai ehizera atera aurretik eta ehiza denboraldia amaitzean ere. Beti-beti zakurra tratatzean bere txabola eta ingurua ongi desinfektatuko ditugu, parasito hauen arrautza eta larbekin akabatzeke.

● Elikadurari dagokionez, ehiza denboran gure zakurrek eginiko ariketa fisikoa gehitu egiten da, geldirik zeudenean baino energia gehiago beharko dute, ondorioz pentsu energetikoak ematea gomendatzen da.

● Zakurren oinak ere zaindu beharko dira: almohadilak. Almohadilak gogortu daitezen ibiltzea eta ibiltzea bezelakorik ez dago, baina noizbehinka begiradaxo bat eman behar zaie eta dituzten zauriak ongi sendatzen utzi.

Ez ahaztu gure zakurra gustora ez badabil mendian ez digula ongi ehizatuko.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN





Udalbiltza

Euskal Herri osoko 1.776 hautetsien aldeko botoekin eratu zen Bilbon irailaren 18an Udalbiltza. Goierriko udaletako EAJ, EA eta EHko ordezkariak ere hantxe izan ziren. Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraingo alkate eta zinegotziak bertan izan ziren; guztira, 113.

Udalbiltzaren Batzorde Iraunkorrean goierritarren partaidetza ere badago. Jon Jauregi, Beasaingo alkatea (EAJ) eta Jose Mari Agirre ataundarra, Tolosako zinegotzia (EAJ). Jon Jauregi gainera, Udalbiltzaren bozeramalea izango da. Batzordea Euskal Herriaren naziotasuna aldarrikatzeko eta sendotzeko tresna izango dela dio.

Udalbiltzaren Batzorde Iraunkorrek Beasainen egin zuen lehenengo bilera irailaren 21ean, lantaldeak banatzeko helburuarekin.

Inaxio Aierbe

Ataungo Inaxio Aierbe 'Koñaro' euskal errefuxiatu politikoa Atauna etorri zen irailaren 22an, aurkitu berri dioten koloneko minbiziagatik bere osasun egoera larritu ondoren. Ikusi Ataungo kronika.

Artisaualdia

Urriaren 13tik 17ra bitartean ospatuko da aurtengo Arti-

saualdia, Ordizian. Azoka asteburuan izango bada ere Majori Kiroldegian, 13tik 15era izango da zer ikusi eta zer ikasirik.

13an eta 14an, Goierriko ikastetxeetan haurrentzako eskulan tailerrak izango dira.

14an, Donostiako Lugaritz kultur etxean, mahai ingurua izango da Gipuzkoako Elkarteko Artisauei zuzendua, 19:00etan.

Sasieta: zaborra gora, berziklaketa ere bai

Sasieta Mankomunitateak urtariletik abuztura bitarteko jardunaldiaren laburpena egin du, iazko datuak alderatuz. Bilketa bereiztua nabarmen hobetu da aurtan, baina zaborraren gehikuntza ere handia izan da.

Goierritarrok sortzen dugun zaborra % 13 igo da, sekula ez bezala. Berziklapena dena den, asko igo da, sekula ailegatu gabeko mailetara. Bataz bestekoa % 18,5ean dago; hau da, gure etxeetan sortzen diren 100 kilo zaborretatik ia 20 kilo berziklatu egiten dira. Hala ere, nahiz eta berziklapena asko hobetu den, gehikuntza hau ez da nahikoa izan sortu den zabor guztiari aurre egiteko. Sasieta datuen arabera, aurtan zabortegian iaz baino zabor gehiago jaso da.

Merkatal jatorrizko kartoiaren bilketari dagokionez, iaz baino ia hiru aldiz gehiago jasotzen ari dira. Gaur egun egunero jasotzen da kartoia, astelehenetik ostiralera, Mankomunitateko merkatal kaleetan.

Papera, oro har, edukinontzi urdinetan, % 13 gehiago bildu da. Gaur egun esan daiteke gure etxeetan sortzen den paper eta kartoiaren erdia baino zertxobait gehiago berziklatzen dela: % 52.

Ontzien bilketak ere emaitza onak izan ditu. Iaz bilketa hau Mankomunitateko herri guztietara zabaldu zen eta bilketa hau egonkortuta bazegoen ere, aurtan kopuruak igotzen ari dira.

Beira da gehien biltzen dena, baina iazko datuekin alderatuz, beherakada txiki bat izan du. Hurrengo hilabeteetarako helburua bilketa hau indartzea izango da.

Bukatzeko, egindako sentsibilizazio kanpainen eta zerbitzuetan egin diren aldatetarik inoiz ez bezalako emaitzak eman dituzte zaborra sailkatu eta edukinontzi ezberdinetara botatzeko orduan. Hala ere, Sasieta Mankomunitateari zail ari zaio gertatzen zaborraren sorkuntza gelditzea, gure kontsumo gizarte honetan.

15ean izango da inaugurazio ofiziala, 17:00etan, Barrera kultur etxean. Jarraian bi hitzaldi izango dira: 17:30ean, 'Marketing: saltzen ikasiz', Javier Tejerina merchandising irakaslearen eskutik. Ondoren, 19:00etan, Goiekiko Iker Galparsorok;

'Nola montatu zure negozio propioa' hitzaldia eskainiko du. Bi bilerak Barrenan izango dira.

Iñaki Azurmendi

Arriarango aizkolaria 4. izan zen Euskal Herriko II. Mailako txapelketako finalean.

GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



* 1999-2000 IKASTURTEA

- WINDOWS 95
- WORD
- EXCEL
- AUTOCAD
- INTERNET

* Ordenadore muntaia eta salmenta

Ikasle bakoitzeko ordenadore bat
Talde txikiak: 5 pertsona gehienez
Plaza mugatuak

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN

Urruzuno saria Goierriko baratzean



Sentimen-
duen joan-
etorrian, hi-
tza hats
bihurturik,
Txindoki,
Alkartasuna
eta Loinaz-
peko lurretan
ereindako
ametsondok
amets be-
rriak ekoiz-

ten darraite. Izan ere, hiru beasaindar eta ataundar bat ditugu gazteen mailako literatur lehiaketa garrantzitsuena den Urruzuno sariketako garaileak, Ainara Gorostizu, Idoia Goikoetxea, Maddi Garmendia eta Irati Goikoetxea hain zuzen ere.

Euskara landuan, hitz joko, metafora, esamolde eta elipse aberatsez hornitutako ostarkuan kulunkaturik, errealitatetik irudimenaren mundura egin dute jauzi, hamar egunen buruan Suitzako txoko eta paisaia zerutiarrak eztimamituz.

Idazteko zaletasunaren jatorria hizpide harturik, laurak bat datoz ume-umetatik, barne irrika eta gogoetak bultzaturik, bolaluma hegalararen baitan benetako plazerra eta zoriona aurkitzen dutela aitortzerako garaian. Halaber, beraien gaztean, ugarriak dira lehiaketa desberdinetan erdietsitako lorpenak. Sari orok bere xarma badu ere, Urruzuno irabazteak damaien diru poltsa, bidaia, giroa eta lagunartea berezia eta paregabea delakoan gaude. Ez da gutxiagorako!

Gaiei dagokienean, hurbileko arazo eta ardurak dituzte helbide: maitasuna, arrazakeria, ingurugiroa... unearen, bizipenen eta iradokimenaren araberako hautaketa eginaz. Suitzako bidea urratzeko aukera eman dien gaiak esaterako arras dira desberdinak eta politak. Maddik, agure alkoholiko batek parez pare duen botilari egindako bakarriketa azaltzen du bere 'Laztana' lanean; Ainara, 'Baserritik' izenburupean, Arkaizpe baserri zaharra uztera beharturik dauden aiton-amona batzuei buruz mintzo da; Idoiaren 'Bjorkeport Maldizioa'-k ikerketa bat aitzakiatzat harturik, pertsona batek dirua lortzearen egin ditzakeen gauzei buruzko kritika du ardatz eta Iratiren 'Asko maite duenak asko sufrizten du' bertso sorta berriz, Kuxki txakurra lagun, urrezko kaiolatik at bizi nahi duen birigarroaren askatasun garraisia da. Zoragarriak guztiak ere.

Irakurtzea, kirola eta musika dute atsegin. Idoia bestalde, kultura desberdinen ikerketa eta ezaguerak erakurtzen du; Iratik bertsolaritza maite du eta Maddi eta Ainarak lagunartea eta parranda dute gogoko. Baina lau neskatoeei iragana eta etorkizuna esku emanda datozkie orainaren abenidan; Maddik mediku, Idoiak genetikako ikertzaile, Iratik kazetari edo biologa eta Ainara ataundarrak Euskal Filologiako lizentziatu izateaz gainera amets bera dute amesten, aurrerantzean ere hitz-lauz lau hitz idazten jarraitzea. Hala bedi!

Ekaitz Goikoetxea 'Mekola'

Euskararen irakurmena sustatu eta lantzeko kanpaina

Euskaldunon Egunkariak eta euskaltegiek euskaldun zein ia euskaldunak euskaraz irakurtzeko zaletasuna eta ohitura har dezaten bultzatu nahi dituzte. Ohiturak aldatzen joan daitezzen, garrantzitsua da euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunak gainditzeko laguntza teknikoa eskaintzea. Laguntza hori euskaltegietan emango diren trebatze-ikastaro berezietan dazta.

Kanpainaren eskaintza: 12.000 pezetaren truke, 50 orduko ikastaroa eta hiru hilabeteko Euskaldunon Egunkariaren harpidetza. Diru kopuru hau ikasleak matrikulatzerakoan ordaindu beharrekoa da. Behin ikastaroa amaituta, parte hartu duten ikasleei 15.000 pezetatan 9 hilabeteetako harpidetza eskainiko zaie. Euskaltegian dagoeneko ikasten ari diren gai-nontzeko ikasleei 7.525 pezetatan Euskaldunon Egunkariaren hiru hilabeteko harpidetza eskaintzeko asmoa dago.

Kanpainan parte hartzen duten euskaltegiek HABE-ren diru-laguntza jasotzeko parada izango dute.

Goierriko euskaltegi guztietan dago aukera kanpaina honenkin bat egiteko aukera:

AEK-n (Beasain, Lazkao eta Ordizian): 943889340 - 943889174.

Beasaingo Udal Euskaltegian: 943805254.

Lazkaoko Maizpiden: 943889231.

Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketa

Ordizian eta Beasainen jokatu ziren irailaren 18an eta 25ean, Gipuzkoako Herri arteko bertsolari txapelketako lehenengo saioak. Ordizia Zaldibiaren aurka aritu zen, Argi Berri elkartearen, eta ordiziarrek izan ziren garaile, 30 punturen aldearekin. Itzulerako saioa, bihar, urriak 2, jokatu da Zaldibian. Bi saioetako puntuazioak kontuan harturik, puntu gehien dituen taldea pasatuko da bigarren fasera.

Beasainen kasuan, Toloxaren aurka aritu zen, Artzai Enea jatetxean. Beasaingo taldeak bost puntugatik galdu zuen. Itzulerako saioa urriaren 9an jokatu dute.

Pagorriagan pelikula grabatzen


Murumendiren magalean dagoen Pagorriaga orein granjan 'Clara' pelikula grabatzen aritu dira. Antonio Cuadri da zuzendaria eta aktoreak oso ezagunak: Joseba Apaolaza, Manu Valdivielso, Asier Ormaza, Aitor Mazo, Txema Blasco, Kandido Uranga, Andoni Arbulu eta Elsa Pataki. Maitasun historia kontatzen da, polizia eta mafiosoak tartean dituelarik. Protagonista natur gida eta nekazal hotel bateko nagusia da. Pausoka da produktorea.

Pagorriagako baserrian grabatzeaz gain, Urkiola eta Anboto inguruetan, Bilboko Arboledan, Laredo aldean... grabatu dute.

Patxi Iraola: bertsolaritzaren lehena eta oraina

Patxi Iraola zaldibitarra. 1933an Olegi baserrian jaioa. Bertsolaria. 66 urterekin, Gipuzkoako Herri arteko bertsolari txapelketan parte hartzen ari da Goierri-Zaldibia taldean, aspaldian txapelketak utzita bazeuzkan ere. Finlandian jokatu berria den sega txapelketa batean 2. postua lortu du. Artaldetxo bat ere badu. Sasoiko dago oraindik. Bertsolaritzaz hitz egin dugu Patxi Iraolarekin.

Txiki-txikitatit bertso giroa ezagutu eta 12 urterekin ausartu zen lehenengo bertsoa botatzera, jendearen aurrean. "Etxetik datorkit zale-tasuna eta Basarri eta Uztapidek ere eragina izan zuten. Mutiko koskorak ginela kantatzen ikusi genituen. Anaian artean entseiatzen aritzen ginen, 'Ni Basarri eta hi Uztapide' eta horrela. Afizioa sortu zitzaigun", dio Patxik. Aita ere bertsolaria zen. "Etorri handikoa zen, nahiz eta teknika aldetik lan-



Santafeak

Santa Fe jaiak ditugu urriaren Setik aurrera. Hauek ere ez dira batere aldatu garai batetik hona! Segurako txistulariak, jazzbanda... "Bazkaldu eta segituan hasten zen festa, ez gaur egun bezala gauean. Urte batean ordena gogorak jarri zituzten: dantza lotuan egiterik ez, gauean 12etarako etxera..."

Plazako bertso saioak geroagokoak dira, 1970. ingurukoak. "Gerrarekin dena txikituta gelditu zen. Txirrita gerra hasi zen garaian hil zen, Basarri eta Uztapide azaldu bitartean, ahaztuta zegoen jendea. Basarri eta Uztapide etorri zirenean gogoratzen naiz nire aita amari esan ziona: Basarri eta Uztapide omen dira bertsolariak, horiek omen dira gaurko bertsolaririk onenak, ederki kantatzen dute. Baina beste mutiko koxkor bat ere ikusi dut haiekin kantatzen, Abalingo Felipe-ren semea dela esan dute. Nola kantatzen duela? Hura izango da bertsolaria!". Lazkao Txiki zen.

dua ez izan. Batzutan hankaluzeak, besteetan motzagoak... Irudimen ikaragarria zuen. Landugabe geldituta koa zen baina hark bazuen

etorria".

Zaldibiako deposituetako tabernan bota omen zuen lehenengo bertsoa Iraolak. Plazan lehenengoa berriz, Zaldi-

bian bertan, Luistarren festan. Legorretan egingo zuen hurrengo saioa, Lazkao Txiki ere lagun zuela. "Baina ez neukan plazan aritzeko hartainoko gogorik. Plazan asko aldatzen da bertsolaria. Asko sufritzen nuen plazan".

1966an Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu zuen. Bailaraka egiten ziren kanporaketak, 18-19 bertsolari izan ziren. Gerora txapelketa gehiagotan ere parte hartu zuen; Idiazabalgo Zepai txapelketan, 1974an, txapela irabazi zuen. Aurtengo Gipuzkoako Herri arteko Bertsolari Txapelketan ere parte hartzen ari da.

Txapelketak beharrezkoak dira Iraolaren ustez. "Goi mailan dabilzan bertsolari gehienak txapelketatik ateratakoak dira. Txapelketak azalduarazi egiten du talentua daukana. Lehen ere beharrezkoak ziren eta orain ere bai", adierazi du zaldibitarak.

Mitinelariak

Gerraondorengo garaiak ezagutu ditu Patxi Iraolak. Garai garrantzitsuak izan ziren, baita gogorak ere. "Francoren garaian, bertsolaria mi-

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105


N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLERETAN**

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

tinlaria zen, beste inork esaten ez zituen gauzak bertsolariak esaten zituen. Jon Azpillaga eta Jon Lopetegik lan handia egin zuten horretan. Eusebio Igartzabal gabiriarrak ere bai". Zigor asko jaso zituzten bertsolariak Patxi Iraolak gogoratzen duenez. Lazkao Txiki bera ere 3 hilabetean egon omen zen kantatzeko baimenik gabe.

Zentsura pasatu beharrean izaten ziren bertso saio bat egiteko. "Gaiak aurretik Gobernadoreari erakutsi behar zitzaizkion. 'Pagos al Estado' ere eraman behar izaten ziren".

Franco hil ondorenean, 1977-78. urte inguru horretan, saioak ugariagoak omen ziren. Egun berean bi lekutan kantatzea egokitutakoa da Patxi. "Herri batean edozein aitzakia zela bertsolariak behar izaten ziren".

Entzuleak ere gehiago izaten ziren. Gaur egun, jende gutxi xamar izaten da bertso saioetan. Zaldibitarrek zerbaiten hutsunea nabaritzen du aldaketa horretan: "belaunalditik belaunaldira-ko aldaketa dagoela iruditzen zait. Gure kirako jende asko etxean gelditzen da. Behin edade bat ezker aje- ren bat izaten da. Gazteak,

- Bertsotarako gai serioa alau morezkoa nahiago?

- Biak gustatzen zaizkit.

- Lanik gustokoa ena?

- Bakarka baino teman nahiago izan dut beti. Puntutan aritzea ere gustatzen zait. Puntua jarri eta erantzutea da zailena.

- Bertso saiorako bertsolari kopuru egokiena?

- Behin sei bat ezker nahikoa da. Askotan gertatzen da, kantaldi bat egin eta gero puska batean geldi egon beharra. Niretzat hori ez da ona, segidan kantatzea hobea da, hoztu egiten da bestela. Ahalik eta lanik gehien eragin behar zaio segidan bertsolariari.

- Bertsorik ezin bukatu geldituta al zaude?

- Bigarren egin nuen txapelketan. Eginda neukan bertsoa. Puntuari erantzutea zen lana eta hirugarrena esan nuen garaian seko ahaztuta gelditu nintzen. Hura eginda bigarren saria eman zidaten eta hura egingo ez banu ez dakit zer izango zen.

berri, hainbeste gauzatan sartuta dabilta, eta bertso saio arruntetan ez dut uste jende askorik biltzen denik. Txapelketetan gehiago. Bertsolariak ere aldatu egin dira, bertsoa bera ere bai... beste kultura bat badago...

zerbaiten hutsuneren bat badago. Ez dakit esaten zein den hutsunea".

Aldaketa handia

Aldaketa handia ikusten du Iraolak bertsolaritza munduan. "Beste bertsokera bat


egiten da. Hizkuntza, erri- mak... asko aldatu dira. Bertsolarien itxura ere bai: lehen txapelarekin, brusarekin ere ezagutuak gaude; orain mutilak belarritakoein... asko aldatu da bai".

Lehendik hona gaiak ere aldatu omen dira. "Lehen garai batean ez zen gairik izaten, librean aritzen ginen. Hi hau haiz, hik hau egin dek... trapu zaharrak atere- az... Orain bertsoan egiteko informatuago egon behar da askotan. Gai konplikatuak jartzen dira askotan. Gazte- ak ondo moldatzen dira".

Bertso-eskolak

Lehen eskolaren beharrik gabe ikasten zuten bertsoan. "Gure garaian bertsolari giroan jaio eta hazi ginen, bertsolariak oso gazterik ezagutu genituen". Gaur egun, ordea, bertso-eskolak beharrezkoak ikusten ditu bertsolariak sortzeko, "bertso- eskolarik ez balego ez litzateke bertsolariak izango, gure garaiko giroa ez baitago".

Bertsolariak berezkoa behar duen edo bertsoan ikasi daiteken galdetu diogu bukatzeko Iraolari. Bertsoa osatzen ikasi omen daiteke, baina berezko ironia, ateraldia... behar omen da.



Auto EASO

ibabe industrialdea, 13 LAZKAO ☎ 943 16 30 15 ☎ 606 301 955

Siboney

ESTETIKA ZENTRUA

☎ 943 88 15 50

Senpere Merkatal Gunea BEASAIN

TRATAMENDU MEDIKOAK

- Aurpegiko orbanak edo mantxak
- Ezpainetako zimurrak

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

MAKILAJE IRAUNKORREKO TEKNIKO ESPEZIALISTA

- Begiak
- Ezpainak
- Bekainak

MAKILAJE IKASTAROAK

DEPILAZIOA

IBAI-ONDO

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43

Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda

eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

Santa Fe jaia Zaldibian



Urriak 5, asteartea:

19:00etan: Txupinazoa. Ondoren herriko Goiztiri txaranga.

19:00etan: Buruhandiak.

Arratsaldean herrian izango den herri kalejira Zaldibiako Herri Ekimenak zaldibitarrei parte hartzea gonbidatzen die.

20:00etan: Mondejuak dastatzeko aukera izango da.

23:00etan: Izotz musika taldea.

Urriak 6, asteazkena: Santa Fe eguna:

11:00etan: Meza Nagusia: bertsolariak, trikitixa, dantzariak eta eskaintzak.

12:00etan: Maialen Lujanbio eta Jokin Sorozabal bertsolariak.

17:00etan: Iztueta dantza taldea.

18:30ean: Pilota partiduak: lehen partidua, Zaldibiako pilota eskolakoen partidua; bigarren partidua, Berraondo-Sukia Chafee-Auxkinen aurka.

20:00etan: Kristina eta Amaia trikitilariak.

23:30ean: Dantzaldia berriro ere Kristina eta Amaia trikitilariekin.

Urriak 7, osteguna: haurren eguna:

11:30ean: Haurrentzat joko eta jolasak herriko plazan.

Eguerdian: Plazan bazkaria. Norberak bere gustoko bazkaria ekar dezala.

Ondoren: Arratsaldean egin behar den mozorro kalejirarako makilaje tailerra.



MILA ARRADEGIA



*Zaldibitarak zorionduz
Sta. Fe festa hauetan*

☎ 943 88 90 84

Sta. Fe Kalea

ZALDIBIA


PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA

Tfnoa.: 943 88 28 68



Garbitasunak

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 88 96 67

ZALDIBIA



**ZALDIBIAKO
UDALA**

**ZALDIBIKO
HERRIAK
HERRIKO JAIETAN
PARTE HARTZEKO
GONBITEA EGITEN
DIZUE**

Arratsaldean: Mozorroturik herrian zehar kalejira.

18:30etan: Zezenak eta portoka herriko plazan.

22:00etan: 'Urepelaren erronka' dantza, trikiti eta bertso ikuskizuna.

Urriak 8, ostirala:
Mozorro gava:

19:30etan: Areto Futbol txapelketaren finala.

22:00etan: Gipuzkoako Euskal Pilota elkarteak antolatutako Gipuzkoako Esku-pilotako 1. Openaren finala.

24:00etan: Sakatrik musika taldearekin dantzaldia. Musika atsedendaldian Gazte taldearen eskutik Play Back lehiaketa.

Urriak 9, larunbata:
Preso eta errefuxiatuen eguna:

12:00etan: Takolo, Pirritx

eta Porrotx pailazoen emanaldia.

18:00etan: Euskal folklorearen inguruko dantza-kanta ikuskizuna.

20:00etan: Zaldibiako Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako manifestazioa. Ondoren plazan ekitaldia.

24:00etan: Xitoak musika taldearekin dantzaldia.

Urriak 10, igandea:
Koadrila eguna:

11:00etan: Meza Nagusia: bertsolariak, trikitilariak, dantzariak eta eskaintzak.

12:00etan: Nazioarteko sega txapelketa: Tirol-Euskal Herria.

13:00etan: Koadrilen interak Los Incansables txarangarekin.

14:30etan: Bazkaria herriko plazan.



Arg.: Karnele Zoilo

Ondoren: Txarangak giro-tuta koadrilen arteko joakoak plazan.

Arratsaldean eta afalordurarte: Los Incansables txarangarekin kalejira.

24:00etan: Etzakit taldearekin dantza saioa.

Goizaldean: Txokolate jana.

Urriak 11, astelehena:

19:00etan: Buruhandiak.

20:00etan: Euskal Presoak

Euskal Herrira kontzentrazioa.

21:00etan: Afariak, norberak ekarrita.

23:30etan: Araujo y los mecanicosi, Xuia eta Berri Txarrak taldeen kontzertua.

Oharra: Zaldibiako Herri Ekimenak Santa Fe festetan, Euskal Presoak Euskal Herrirako oihalak balikoietan jartzeko gonbitea egiten dizue.



LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

→ 4 logela, beren bainugelekin

→ Gosari, bazkari eta afariak

☎ 943 88 00 44

Aiestaran erreka

ZALDIBIA

IÑAKI ERAUSKIN
HARATEGIA

Mondeju ederrak!

☎ 943 88 30 87

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA



Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

● Iturgintza

● Berogintza

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN



Loradenda

- ✓ Ezkontzako lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Koroaiak
- ✓ Enpresatako koroaiak
- ✓ Lora apainketa mota guztiak
- ✓ Larunbat arratsaldetan zabalik

Santa Fe jai zoriontuak!

☎ 943 889 883

Geltokiko kioskoa

ORDIZIA

SEGURA

Gasifikazio proiektua

Repsol enpresako ordezkariak gasifikazio proiektu posibleari buruzko inkesta egitera pasa ziren pasa den astean eurek auke-ratutako etxe batzutatik. Inkes-taren emaitzak eta herritarren interesak udalari jakin araziko dizkio Repsolek.



Eskolako benjaminak

1997an jaiotakoak dira lehen aldiz eskolaratu direnak, 16 guztira. Pasa den astera arte 2 taldetan banaturik ibili dira baina dagoeneko talde bakar batean dabilta, goizeko 9,45etatik 10,45etara. Eskola-ra egokitu ahala ordu gehiago emango dituzte bertan.

Ezkerretik eskubira: Irune Barandiaran (andereñoa), Maddalen Goñi (mutiloarra), Ainhoa Intxausti, Aiora Telleria, Mariana Fernandez, Eukene Goikoetxea, June Garmendia, Maider Mujika (andereñoa), Mikel Muñoz, Aritz Jauregi, Andoni Elorza, Nerea Beldarrain, Maddi Montero, Julen Orrigain, Jon Sarasola eta Ioritz Garro. Argazkia ateratako egunean Nestor Rodriguez eta Maitane Berasategi falta ziren.



Bidegurutze arriskutsua

Uztailean bariantea inauguratu zenetik, 2 istripu larri, 3 arin eta beste hainbat eskapada izan dira. Biribilgune edo errotonda itxura badu ere, ez du honekin zerikusirik, Segura-Zegama norabidean doazenek bait dute lehentasuna. Segurako nahiz Zeraingo udalek benetako errotonda egitea proposatu dute. Diputazioak bidegurutze-ari zenbait ikutu egin ondoren epe bat ireki du egoerak zertan jarraitzen duen ikusteko.

29 herritar udal batzordeetan

Pasa den astean eta honetan bu-rutu dira komixioetako lehen bilerak. Bertan, zinegotziez gain, 29 herritarrek parte hartu dute batzorde ezberdinetan. Aurrerantzean ere edozein her-ritar izan daiteke partaide, ja-rraipena ziurtatuz gero.

Alkatzaren oharra. Edo-zein herritarrek duen kezka, arazo, informazio falta eta aba-rretarako, aurrez hitzordua es-katuz, 12:30etik 14:30era uda-letxean egongo da alkatea egu-nero. Ordutegi horretan ezin izanez gero, zita eskatuz, ez le-

goke arazorik arratsalde parte-an ere biltzeko.

Legealdiko lehen plenoa atzo burutu zen. Hauek hilaren azkeneko ostegunetan izango dira. Gai ordena 48 ordu lehe-nago kaleratuko da eta bertara edozein herritar joan daiteke.

Lan eskaintza

Partzoneriko koto sozialean, azaroaren erditik apirilaren er-dira gida modura lan egiteko izen emate epea, urriaren 15ean amaituko da. 8 lanpostu eskaini dira eta izenak partzoneriko edozein udaletan eman behar dira. Informazio gehiago udale-txean.

Kilometroak eta Nafarroa Oinez

Elorri K.E.ak, urriaren 3an Oreretan izango den Kilome-troetarako ez du autobusik an-tolatu, tren konbinazioa bada-goelako. Urriaren 17an Iruñean ospatuko den Nafarroa Oinez-erako, berriz, bai. Izen ematea eta informazioa Elorripen.

Lourdesera egunpasa

Urriaren 3an, goizeko 7,40etan irtengo da autobusa Jermanen-etik. Goizeko 11etan meza en-tzuteko aukera izango da. Eguerdiko leian bazkaria izan-go dute bertako jatetxe batean. Arratsaldean, gaixoen proze-sioa ikusteko aukera. Itzulerako autobusa iluntzeko 7etan izan-

go da. Informazio gehiago Jer-manenen.

6 bandera arraunean

6 bandera izan dira aurtengo denboraldian Jon Agirre herri-tarrak lortu dituenak Zarautz taldean; Koxtape, Miarritze, Irun, Arraun Lagunak, Ur Kiro-lak eta Hondarribikoa.

Pelota

Segurako taldea ez da ari parte hartzen Gipuzkoako klub-arte-ko txapelketan. Hala ere, bi herritar lehiaketa horretan dira. Inge Olano, juniorretan Lazka-oko taldearekin ari da. Gari-koitz Oiarbide, berriz, Beasain-goarekin.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Pefe-rentea:** Segura 2-0 Zestoa. **Ju-benilak:** Segura 4-5 Beasain. **Astebururako partiduak etxean:** **Kadeteak:** Aizkorri-Ostadar, zapatuan goizeko 11etan. **Infantilak:** Aizkorri-Bergara, jaien goizeko 11etan.

Joseba Telleria

Presoen aldeko ekintzak

Irailaren 25ean, presoen al-deko taldeak preso eta erre-fuxiatuek bizi duten egoera kaleratu zuten herriko pla-zan. 3 puntu nabarmendu nahi izan zituzten: barrote-rik gabeko presoak (errefu-xiatu eta deportatuak), pre-so gaixoak (Antton Garcia ordiziarren egoera) eta Frantziako espetxeetako egoera (Fresnes).



ZALDIBIA

Napartheid Komiki fanzineak bere fanxinoteka erakusgai izango du Kultur Etxean irailaren 28tik urriaren 5 arte. Erakusketa liburutegian egongo da eta arratsaldeko 5etatik 7,30ak arte aukera izango duzue mota guztietarako komikiez gozatzeko.

Fanzinoteka hau 2.700 fanzinetik gora biltzen duen gunea da, Napartheiden bizitzan zehar jasotako komiki bilduma da hain zuzen ere. Bertan, mundu osoko argitalpenak biltzen dira, Australiatik hasi eta Kanadaino iristen direnak. Hamaita hizkuntzez (euskara, suomiera, arabiera, nederlandera, ingelera, fantzesa, gaztelera, italiera, portugaleria...eta baita esperantoera ere) osaturiko bilduma hau Napartheiden jarduera medio elkartrukaketaren bidez jaio baldin bazen ere, azken bi urteetan propio eragindako bilketa bilakatu da; oraingoz 700 lagun baino gehiagok bidali dituzte haien lanak 2.700 ale hauek metatu arte.

Erakusketa honetako lanak sei ataletan banatuta



daude: komikiak, komikiei buruzkoak, bestelako arteak, musika, katalogoak, informaziozkoak. Fanxinoteka honen helburua ez da biltzei hutsa izatea, baizik eta lan hauek guztiak ahalik eta jende gehiagorena iristea baizik, eta bide batez, jendeari fanzin ezberdinak irakurtzeko aukera ematea.

Zentzu honetan, eta fanzinen mundua gehiago eza-gutu nahi baduzu, gaur arratsaldeko 7etan Napartheiden azkeneko alearen aurkezpena eta komikiaren in-

guruan solasaldia izango da liburutegian. Izan funtsa!

Bertso afaria

Gipuzkoako herrien arteko txapelketa dela eta, etorriko kanporaketa jokatu da bihar larunbata Gaztelu elkartearen. Joaneko saioan Zaldibia ordezkatzeko duten bertsolariek puntu gutxi bultzatuz galduta zuten norgehiagoka Ordiziako taldearen aurka Argi-Berri elkartearen ospaturiko saioan. Zaldibiako taldea honako bertsolari hauek osatzen dute: Iñaki Murua, Alaitz Saraso-

la, Mikel Aranburu, Patxi Iraola eta Iker Zubeldiak.

Kanporaketako bertso saio honetako afarira joatera animatzen zaretenak Joxepane, Nazabal eta Arresenen dituzue txartelak salgai 2.500 pezetatan. Guztion beharra izango da kanporaketa hau gainditzeko, beraz azaldu!

Pilota eskola

Gailurrerantz Kirol Elkarte-ko pilota sailak lerro hauek aprobetxatu nahi ditu hasi berria den ikasturte honetako pilota orduak zeintzuk izango diren zehazteko. Pilota Eskola astearte eta ostegun arratsaldetan ospatuko da lauetatik seirak bitarte, eta herriko gazteak animatzen ditu gure kirol honetan parte hartzera.

Ipuin saioa

Kultur Etxeak antolatutako gaur arratsaldeko 6,15etan Arrate Leunda ipuin kontalariaren saioa izango da. Emanaldi hauek 3 urtetik 10 urte bitarteko haurrentzat zuzenduak daude.

Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga



ARRESE
Jatetxea
Festa onak opa dizkizuegu
☎ 943 88 17 14 ZALDIBIA

ESTANKO
taberna
Pintxo bereziak
Festak ondo pasa
☎ 943 88 28 65
Sta. Fe, 15 ZALDIBIA

ZUBI
ONDO
TABERNA
☎ 943 88 28 76 ZALDIBIA

BIOK ALKAR
auto konponketa
ABS frenuetan eta injekzioan
tailer espezialista
JAI ZORIONTSUAK PASA DITZAZUELA!
☎ 943 88 01 60
Mendi-Ondo ZALDIBIA

NAZABAL
ERRETEGIA
Otordu goxoak jenez
lagunarteko giroa
☎ 943 88 71 46 Sta. Fe Kalea
ZALDIBIA

GUREA MERTZERIA
(PEPITAN DENDA)
Arropa denda
◆ Emakume
◆ Gizon
◆ Haurrak
Txindoki, 23 ☎ 943 88 57 98 ZALDIBIA

ORDIZIA

Bertso Eskolak atekak zabalik



Ikastetxeak martxan jarri zirela aste batzuk pasa dira jada. Orain txanda Goierriko Bertso Eskolari dagokio eta horretarako izena emateko epea zabalik dago. Erantzunak urriaren 9a baino lehenago eman beharko dira eta ikasturtea 18an hasiko litza-teke. Deialdia 5 eta 6. mailatik gorako Goierriko hainbat ikastetxetako haurrei zuzendua dago eta jakin, inork izena eman nahiko balu, bere irakaslearekin harremanetan jartzea besterik ez duela.

16 urte pasa dira Goierriko Bertso Eskola martxan jarri zenetik eta harrezkero ikasle mordoa pasa da bertatik. Batzuk ezagun bilakatu dira gaur egun bertsolaritza munduan (Aitor Sarriegi,

Igor Eguren, Xabier Narbarte, Alaitz Sarasola, Ekaitz Goikoetxea...) eta beste batzuk hasi dira sariak irabazten (Oier Zurutuza, Aitzol Munduate, Irati Goikoetxea...). 98/99 ikasturtean 30 ikasle inguru aritu ziren astelehenetan batzuk eta ostiraletan beste batzuk Ordiziako Barrena kultur etxean elkartuaz. Eskolarteko Gipuzkoako txapelketan ikasturte osoan landutakoaren emaitzak etorri ziren, taldeka garaipena lortuaz eta Aitzol Munduate Euskal Herriko txapelketarako sailkatuaz. Lazkao Txiki Bertso paper Lehiaketan ere Oier Zurutuza atzundarra nagusitu zen gaztetxoan mailan.

Goierri-Ordizia aurretik

Aurreko alean esaten genizuen bezala Gipuzkoako Bertsolari txapelketa abian jarri zaigu eta lehen kanporaketan Ordizia Zaldibiaren aurka ari da lehian. Argi Berrin jokotutako joaneko saioan Ordiziako taldea nagusitu zitzaion Zaldibiakoari. Tartea eskasa, ordea, 1.050,5 puntu bata eta 1.021,5 besteak. Esan 80 bat inguru bertsozale elkartu zirela Argi Berrin burututako saioa honetan. Itzulikoa bihar iluntzean jokatuko da Zaldibiako Gaztelu Elkartean.

Ikuskizuna

Honela definitu genezake orain bi asteburu burutu zen trenbideko zubi aldatetako eragin zuena. Izan ere, Joseba Rezola Pasealeku haseran (suhiltzaile postu zahararen ondoan), Oria ibaiaren gainean dagoen trenbide-zubia aldatzea egokitu zen. Hone-tarako ikaragarritzko garabia ezarri zuten eta bertaratu behar ziren piezak sekulakoak ziren. Aipatu kalea itxi eta Tximista Sagardotegitik zehar kamioi luzeak sartu eta inguratu behar izan zituztela

piezak. Materialea bertan izan eta gero, larunbat gaua erabili zuten zubi zaharra kendu eta berria jartzeko. Honek guztiak sortu zuen ikusmira ez zen nolanahikoa izan, jendea han izan baitzen bideo kamera, argazki kamera eta abarrekin. Hitz batetan, ikuskizuna.

Hbren herri batzarra

Datorren urriaren 7an egingo du Herri Batasunak Irriki Elkartean herri batzarra. Berau arratsaldeko 7,30etan izango da eta eztabaidatu beharko diren gaiak apustu politikoa, udal osaketa eta bestelakoak izango dira. Dei honen bitartez herritar guztiak gonbidatu nahi ditu alderdiak.

Autobusa Iruñeara

Nafarroa Oinez 99 dela eta, autobusa jarri du Ordiziako Gazte Asanbladak datorren urriaren 17rako. Aurten Iruñean ospatuko da Ikastolen aldeko egun hau. Bertara joan nahi duenak Gaztetxean izango ditu salgai 1.000 pta.ren truk autobuserako txartelak. Irteera Arboledatik izango da goizeko 8etan.

Aitor Calvillo



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



Legazpi kalea. 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogltartekoak

Jai zoriontsuak denoi!

GABIRIA

Joan zen irailaren 17an abiatu ziren Goruntz dantza-taldeko dantzariak Bartzelona ondoan dagoen Esplugues de Llobregat herri-rantz, herri horretako dantza-taldeak gonbidatuta.

Aurrez, Andra Mari jaietan, Gabirian izan genituen dantzatzeko Esplugues de Llobregateko "Colla de Bastoners" izeneko dantza talde hori eta oraingo honetan hemengoei egokitu zaie harantz joatea.

Ostiralean abiatu ziren eta larunbat arratsaldean izan zuten dantza saioa. Lehenik kalejira egin zuten herriko kaleetan zehar eta ondoren lau dantza dantzatu zituzten.

Pozik eta zoriontsu itzuli

Herriko dantzariak Bartzelona inguruan



Bi taldeetako dantzariak Gabiriako Andra Mari jaietan

ziren esperientzia paregabea izan zutelako eta berriro ere horrelako aukeraren bat gertatuz gero parte hartzeko prest.

Arantzazura erromesaldia

Urteroko ohiturari jarraituz,

joan zen igandean, irailak 26, irten ziren Arantzazu aldera berrogeiren bat gabiriar erromesaldian parte hartuz. Bidaia ondo antolatuta zuten eta eguraldiak ere lagundu zien, egun ederra igaro zuten Arantzazu aldean.

Hauek autobusez joan baziren ere, oinez joandakoak ere badira Gabiriatik bertatik irten eta Arantzazuraino urtez urte egin ohi duten bezala.

Gripearen aurkako txertoa hartzeko egunak

Irailaren erdi aldera hasi ziren gripearen aurkako txertoa ematen eta oraindik hartu nahi duen bakarren batek hartu ez badu, jakin beza urriaren bukaerara arte hartu ahal izango duela, Gabiriako kontsultan asteazkenetan eta Santa Lutzikoan egunero. Aurrez txanda hartu beharrik ez dago.

Gabino Murua

ZERAIN

Feri egun arrakastatsua



Irailaren 19an, igandean, erdipurdiko eguraldiarekin, baina giro ederrean ospatu zen Zerainen, Gipuzkoako V. feri ekologikoa. Bertara inguratu ziren 5.000 lagun in-

guruk, erosketa ugari egiteaz gain, egun horretarako antolatuta zeuden ekintzetaz gozatu ahal izan zuten.

Lixibaren prozesua izan zen ikusmirarik handiena

sortu zuena, baita bertan egindako sagar muztioak eta zuku ekologikoak dastatzeko aukerak ere jende askok aprobetxatu zituen, eta ogi tailerrak haurrak erakarri zituen, batik bat, bertan ogiak eta pastak eginez bikain pasatu zuten.

Eguerdian 200 lagun bildu ziren bazkaltzera, giro ederrean egon zirelarik herriko pilotalekuan. Biolur elkartek azokaren V. urteurrena zela eta, 3 oroigarri banatu zituen, nekazaritza biologikoaren alde lanean aritu direnentzat. Oroigarriak Karmen Jimeno teknikariari, Jo-xean Artze olerkariari, eta Zeraingo herriari eman zizkieten.

Inaugurazioa

Irailaren 25an inauguratu zen 'Ilargiaren bidea' izeneko es-

kultura, Jexux Jauregik egina eta auzolanean. San Blasko zelaian jarri dena, bertan izan zen afari herrikoia, eta ondoren bertsolari eta trikitilariak alaitutako erromeria, gauerdian, ilargi bete laino tartetik kurika zela, izan zen inaugurazio ekitaldia.

Mandioa taberna

Mandioa taberna urriaren 1ean, ostiralez, irekiko da berriro. Oraingo honetan Mari Ixabel eta Maria Jexux Urbizu zegamarrak izango dira bertako arduradunak.

Liburutegiko ordutegia

Udako oporrak pasatu eta berriro irekita dago liburutegia. Ikasturte honetan, astelehena, astearte eta ostegunez, arratsaldeko 6etatik 7etara egongo da zabalik.

Mari Flor Mendizabal

IDIAZABAL

San Migelak Ursuaranen

Urriko lehendabiziko asteburuan ospatuko dira aurten Ursuarango jaiak. Herritar askorentzat urteko lehenengo mondejuak jateko aukera izango da beraz asteburuan.

Urriak 1, ostirala:

19:30ean: Jaien hasiera suziri eta kanpaekin. **Ondoren:** afariak; mondejuak, gixadua eta arditxuletak. **22:30ean:** V. "Mus azakarra" lehiaketa.

Urriak 2, Larunbata:

12:00etan: Meza Nagusia. **Ondoren:** Lazkano eta Narbaiza bertsolariak. Ainhua Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak. **14:00etan:** Udaletxe bazkaria. **17:00etan:** VIII. Toka lehiaketa. **Ondoren:** bertsolarien 2. saioa. **Iluntzean:** Afariak eta trikitixa goizalderarte.

Urriak 3, Igandea

11:00etan: Meza Nagusia. **12:00etan:** Aizkolariak, Patxi Mindegia- Peñagarikano-ren aurka. Harrijasotzen: Goenatxo txanda librean. **14:00etan:** Herri bazkaria, Mendizabal eta Zeberio bertsolariak eta Ainhua Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak. **17:00etan:** Haur jolasak, opariak eta txokolatada. **23:00etan:** Jaien amaiera.

Ikastaroak

Kultura eta Kirol Batzordeek hainbat ikastaro antolatu dituzte. Izena emateko epea aste honetan bertan bukatu den arren, berandu dabilenarentzat parte hartzeko aukera ere izango da. Ikastaroen artean berrikuntza bat bada, lehendabiziko aldiz irrati tailerra antolatu baita. Bestelakoan dantza, eskulanak (egur dekorazioa, jostelanak, taila eta saskigintza), soinketa (helduentzat eta jubilatuentzat) eta joga. Informazio gehiago Udaletxean, Kultur Etxean eta Kiroldegian.

Herriko ikastaroekin parez pare hasiko da Salsa ikastaroa. Legazpin bizi den Victor Jesus Gonzalez kubarrak emango du dantza ikastaro hori. Urriaren 5ean hasita, asteartetan egingo da Guraso Elkartean arratsaldeko 7,15etan. Parte hartu nahi duenak bertara azaldu besterik ez du.

Laguntzarako deiak

Maiatzean Zegaman erre zen Asemendi baserriaren alde, Zegamatik etorritako talde bat eskean arituko da Idiazabalaren larunbat honetan, urriak 2. Hauek idiazabaldar guztiei eskean aritzeko laguntza ere eskatu die. Larunbatean beraiekin aritu nahi dutenek Idiazabalgo Udaletxean eman dezakete izena.

Udaletxeko Gizarte Ongizate Batzordeak bestalde, Turkian izandako lurrikarak eragindako hondamendiari aurre egiten laguntzeko diru bilketa antolatu du. Horretarako kontu bana daude irekita Kutxan eta Euskadiko Kutxan. Bildutako dirua Carita-

sen bidez bidaliko da Turkia-
ra. Udaletxeak 150 mila pezetako laguntza ematea adostu zuen irailaren zazpiko ple-
noan.

Zirika Irratia

Ikastaro berria ohi duena bai-
no beranduago hasiko du
aurten Idiazabalgo irratiak.
Irratian egiten ari diren berri-
kuntzak direla eta. Gauzak
ondo urriaren 9an hasiko di-
ra larunbateroko saioak.

Motozikletak

Motozikleta jabeek beraien
ibilgailuak derrigorrez matri-
kulatu behar dituzte. Matri-
kulatze lanak errazteko, da-
tozen bi hilabetetan udalak
bideratuko ditu eginbeharre-

koak. Horretarako motozale-
ek jabearen N.A.N.-aren foto-
kopia eta motozikletaren
ezagurrien ziurtagiria era-
man beharko dituzte Udale-
txera. Adingabeen kasuan
guraso baten N.A.N.-aren fo-
tokopia eta sinadura beha-
rrezkoak izango dira.

Udal zergak

Uraren, estolderiaren eta za-
bor bilketaren gaineko zergak
ordaintzeko epea zabalik
dago urriaren 15a bitartean.
Ohikoa den bezala aurrezki
kutxetan helbideratuta due-
nari bertatik kenduko zaio
dirua, gainontzekoek Udale-
txean ordaindu beharko dute.
Bestela udalak errekaragure-
kin ordaindu araziko die.

Futbola

Aurreko asteburuko emai-
tzak; **Regionalak:** Idiazabal
5 Urnieta 1; **Gazteen 2 mai-
la:** Ordizia 2 Idiazabal 1;
Kadeteak: Idiazabal 2 Aitz-
gorri 2; **Haurrak:** Hernani 4
Idiazabal 1.
Asteburu honetan: Idiazabal-
Ikasberri (gazteen 2 maila),
Euskalduna-Idiazabal (kade-
teak), Idiazabal-Ostadar
(haurrak).

Xabier Urteaga



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatx eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

SAN BENITO IKASTOLA

LAZKAOKO

Hautzaindegi-Ludoteka



☎ 943 88 08 00 ☎
☎ 626 91 80 76 ☎

ZABALIK URTE
OSOAN ZEHAIR:



X Hautzaindegia:

7:00etatik 20:00etara eta
larunbatetan 7:30etik 14:30era.

X Jantokia: 7:00etatik 9:00etara
eta 12:00etatik 14:30era
(haur eskolarizatuak)

X Hautzaindegi-Ludoteka: 16:30etik
20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik
14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

X Kanguroak: Ostiral eta larunbatetan
20:00etatik aurrera.

LAZKAO

Azken urte honetan, futbolak, une baxu xamarrek pasa ditu Lazkao aldean. Errejonaleko taldeak, maila galdu ondoren, ezin izan du talderik osatu denboraldi berrirako. Horrela, gazte mailako taldeak bakarrik gelditu dira Lazkao Kirol Elkartearen.

Baina, areto-futbolearen badiutugu albiste hobeagoak. Bosgarren urtez jarraian, Garaje Lazkao nesken taldeak, denboraldi berriari ekingo dio. Hauek izango dira Mikel Alonso 'Potto' entrenatzailearen esanetara arituko diren neskak. Idoia Oria, Amaia Arnaz, Amaia Sukia, Eneritz Lazkano eta Aihnoa Soraluze lazkaotarrak, Leire Dorronsoro eta Estitxu Sanpedro ordiziarrek, eta Enara, Arantxa eta Ainara beasaindarrak.

Aurten ordea, laguntza izango dute lazkaotarren ize-na Gipuzkoan barrena zabalitzeko garaian, Arruabarrena Lazkao K.E. mutilen taldea sortu baita. Talde honen entrenatzailea, Imanol Aran 'Maza' izango da, lan horretan Kepa Goenagak lagunduko diolarik. Taldeko delegatua, Unai Aldasoro izango da. Hamabi laguneko taldea osatu dute eta hauetako hamaika herritarrak dira. Hauek dituzue jokalarri guztiak, Axier Etxarri ormaiztegiarra, Arkaitz Sebastian, Anakotz Arratibel, Eñaut Aldanondo, Txemi Aizpurua, Gorka Alonso, Iñaki Mendiababal, Jokin Agirreurreta,

Areto-futbola goruntz



Mermelada ikastaroa

Goierriko Euskal Eskolak antolatutako ikastaro honek arrakasta itzela izan zuen, 36 lagunek parte hartu zutelarik, Maizpideko ikasle, herritar eta inguruko herritako artean. Mari Karmen Aranburuk eta Argiñe Telleriak eskeinitako ikastaro honetan, maxusta eta laranja mermeladak, sagar menbrilloa, konpota eta abar egiten ikasi zuten, eta noski, egindakoa probatzeko aukera paregabea ere izan zuten.

Unai Arnaz, Iñaki Tello, Gorka Munduate eta Iker Altuna lazkaotarrak.

I. Gazte Eguna

Aurten lehenengo aldiz, Lazkaoko gazte koadrila desberdinak batu dira eta ekintza ugari antolatu nahi izan dituzte Gazte Egun baten inguruan. Ideia honi forma emateko bilera ugari egin dituzte elkarrekin eta badirudi, urriaren 23an gauzatuko dutela ideia hau. Gazte Egun honen berri hurrengo alean emango zaizuen arren ohar pare bat eman nahi genizkizuen. Ekintza guzti hauen finantzaketa aurrera eramateko, diru premia dagoenez, bono laguntza batzuk jarri

dira herriko taberna guztietan 200 pezetaren truke. Bestalde, kamixeta batzuk ere jarriko dira salgai. Urriaren 23an egingo den gazte bazkarian parte hartu nahi duten guztiek eskuragarri izango dituzue tikeak 1500 pezetan.

Inaugurazioak

Egun hauetan, bi inaugurazio egin dira herrian, lehenengoa, joan den larunbatean izan zen, hilak 25. Esparrura eta Urbaundira doazen pistak inauguratu zirelarik. Bigarrena, berriz, Kultur etxearen inaugurazioa izan zen, eta hau irailaren 29 izan zen Sanmiel egunez.

Hautzaindegiludoteka

San Benito ikastolako Hautzaindegiludotekak ordutegia zabaldu egingo du. Hautzaindegia, larunbatetan zabalik egongo da, 7:30etik 14:30era. Ludoteka ere zabalik egongo da larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Bestetik, beste zerbitzu berri bat ere eskainiko du: Kanguro zerbitzua. Ostiral eta larunbat gauetan, 20:00etatik aurrera hautzaindegia irekita egongo da. Etxean bakarrik gelditzeko autonomiarik ez duten haurrei zuzendua dago zerbitzu hau.

Honi guztiari buruzko informazioa, 943-880800 eta 626-918076 telefonoetan duzue.

Aio eta eskerrik asko

Hau da, seguruenik, nire GOIERRITARRAKO azken kronika, baina ezin nuen agurrik esan, hiru urte luze hauetan lagundu didaten guztiei eskerrak eman gabe, bereziki, Koldo, Joxepa, Miren, Mikel, Loinaz, Argider eta beste hainbati. Hurrengo kronistak zuen guztien eta gehiagoren laguntza eskertuko duelakoan nago, lagundu diezaiozun beraz, lan berrian.

Urko Irastortza

AMEB



Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Sagardotegiko menua
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

ATAUN

20 urteren ondoren etxean, ongi etorri Inaxio!



San Gregorioko plaza eta inguruetan bilduriko jendearen txalo zaparrada artean iritsi zen Inaxio Aierbe bere herri-
ra joan den irailaren 22an. Familiarteko eta lagunez inguraturik oinez egin zuen elizatik plazaraino dagoen tar-
tea, txalapartaren doinuak la-
gun.

Eszenategi gainera igo or-
duko, "Ongi etorri Inaxio!"
esanez eman zitzaion hasiera
momentu hunkigarritz beteta-
ko ekitaldiari. Herriko dan-
tzariak aureskua dantzatu
ostean, Aitz Aierbe eta Oier
Zurutza herritar bertsolari
gazteek bertso bana eskaini
zioten. Jarraian, El Duesoko
kartzelatik Juan Karlos Iol-
dik ongi etorria emanez ida-
tzitako eskutitza irakurri eta
Barandiaran anai-arrebek gi-
tarraz eta Itxaro Barandiaran-
ek xirulaz lagundurik,
"Agure zahar batek" abestia-
ren doinuak bete zen San Gre-
gorioko plaza.

Benetan hunkigarria izan
zen Venezuelako bere lagu-

nek, Euskal deportatu eta
errefuxiatuen kolektiboaren
izenean, telefonoz bidali zio-
ten agurra. Jakina denez,
1989.ean Argeliatik Vene-
zuelara deportatua izan zen,
gaixotasun larri batek jota
Ipar Euskal Herrira lehenen-
go eta etxera orain etorri den
arte. Inaxiok han eman zi-
tuen 10 urte luzeetan utzita-
ko arrastoaren ondorio izan
ziren baita ere Venezuelatik
iritsitako beste hainbat agur
eta opari ere.

Herritarren partetik ere ja-
so zuen oparirik, hala nola
auzotarren, Ataungo alkatear-
en eta Ataungo Senideak-en
izenean opari bana. Bitxia
izan zen Ataungo Jarrai-k
oparitutakoa. "Los Chispas"
taldean jotzen zueneko bate-
riaren "platiloa" eta makilak.
Eszenategira igo ziren baita
ere Ataungo HB, Pelotazale
elkartea, Gipuzkoako EH-
NE, zeinaren hasierako sor-
tzaileetako bat izan zen Ina-
xio, Artadi elkarte eta Ina-
xitoren Lagunak-en ordeza-

Ibilaldi neurtua

Azken urteotan ohi bezala, aurtengoan ere Ataungo Kirol El-
karteak antolatutako, mendi ibilaldi neurtua ospatu zen joan
den igandean. Ataungo txoko desberdinak ezagutzeko aukera
eskaini nahian, aurtengoan Lizarrustiko Parketxetik abiatu eta
Aralarko ingurune paregabearen zehar ibili ziren partehartzaile-
ak. Aurreko urteetan bezala, bi ibilaldi prestatu ziren, Nagu-
sia 4-5 ordukoa eta aukerakoa pare bat ordukoa. Ibilbide lu-
zean 100en-bat mendizalek hartu zuten parte eta 30 inguruk
motzean. Partaidetzaz gain pozik agertu ziren antolatzaileak,
egin zuen eguraldi ederrarekin, aurreko eguneko euri zaparra-
dek bestelakorik pentsarazi bazuten ere.

Areto futbola

Ataun Generali eta Ataun Bittor Jatetxea taldeek urriaren 2an
emango diote hasiera denboraldi berriari.

Ataun Generalik gainera aurtengoan kategoria berria es-
treinatuko du, autonomikoa hain zuzen ere eta azken urteota-
ko ibilbidea ikusirik benetan itxaropentsu ageri dira sasoi ho-
netarako ere. Entrenatzaile lanetan Joseba Kerejetak jarraitu-
ko du eta Igor Sukia izango du laguntzaile.

Bestalde, eta iaz denboraldia bikain amaitu zuen Ataungo
Bittor Jatetxea taldeak 2. Mailan jardungo du. Aurten ere
Eneko Imaz arduratuko da taldeaz.

Denboraldiko lehen partidua Elgoibarren jokatu du Ge-
neralik Zur ta Lur taldearen aurka asteburu honetan. Bittor ja-
tetxeak ostera, Donostian Haritzaren aurka.

Aipatutako bi talde hauez gain, jubenil mailan areto futbo-
leko neska eta mutilen talde bana ere izango ditugu ordeza-
ri. Mutilen taldeak Ataun Zubikoeta Gasolindegia izena era-
mango du.

ri bana ere, bakoitza bere
oparia eskaintzera.

Ondoren Inaxio bera zuti-
tu eta eskerronezko hitzez
zuzendu zen bertan zeude-
nengana. Horrenbeste urte-
ren ondoren bere herrira
itzultzeak sorrazten dion
poza eta etorkizunari begira
duen itxaropena adieraziz,
aurrerantzean ere borrokan
jarraitzera animatuz amaitu
zuen bere hitzaldia. Gerri-

ko, Begiristain eta Joxe
Munduateren bertso saioa-
ren ostean HBko Juan Mari
Olanok ere hitz batzuk es-
kaini nahi izan zizkion etorri
berriari. Ekitaldiari amaiera
Eate abesbatzak eta herriko
trikitilariak eman zioten.
Egunari amaiera frontoian
antolatutako herri afariarekin
eman zitzaion.

Agurtzane Bikuña

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27



☎ 943 88 20 07

BEASAIN

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta

☎ 943 88 72 76

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

BEASAIN

Saskigintza eta elikagaien kontserba ikastaroak

Udalak antolatuta azarorako bi ikastaro prestatu dira: saskigintza ikastaroa eta elikagaien kontserba artisauki ikastaroa.

● Saskigintza ikastaroa:

Azaroaren 3an hasita, asteazkenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara, Ezkiaga Auzo Etxean. Ikasle kopurua mugatua da, gehienez 20 ikasle onartzen dira. Hileko kuota: Beasainen erroldatuek, 2.363 pezeta eta gainerakoek 2.625 pezeta. Izen ematea urrian egin behar da Ezkiaga Auzo Etxean bertan (943161024), BBVko kontu korrante honetan kuota sartu eta ordainagiria eramanda: 0182 0316 49 000001361.

● Elikagaien kontserba artisauki ikastaroa:

Astearte eta ostegunetan izango da 40 orduko ikastaroa, 18:30etik 21:00etara, azaroaren 4an hasita, Ezkiaga Auzo Etxean. Ikasle kopuru mugatua da, gehienez 20 pertsona. Matrikula: Beasainen erroldatuek 9.500 pezeta eta gainerakoek 11.000 pezeta. Ezkiaga Auzo Etxean eman behar da izena, BBVko 0182 0316 49 000001361 kontu korrontean ordainketa egin eta ordainagiria eramanez.

Asmuberen eskaintza

Asmube emakume taldeak antolatutako hainbat ikastaro hasiko da urrian. Astelehenean, 4an, hasiko da jogako ikastaroa, arratsaldetako taldearena; 15:30etik 17:00etara. Urriaren 5ean,

Igartza saria Xabier Etxeberria eta Jasone Osororentzat

Udalak, Elkarlanean argitaletxeak eta CAFk enpresak antolatutako II. Igartza Literatur Sorkuntzako bekako irabazleak dira Xabier Etxeberria zarauztarra, 'Egun danak ez dira berdin' lanarekin, eta Jasone Osoro elgoibartarra, 'Korapiloak' lanarekin. Lehenengoak 500.000 pezeta jaso ditu, CAFek emana; eta bigarrenak 350.000, Beasaingo Udalak eta Elkarlanean argitaletxeak, erdibana, emana.

Idazle berrientzako saria da Igartza sari hau eta lan-proiektuak saritzen ditu. Idazleak urtebeteko epea izango du proiektua liburuan gauzatzeko.

Hamazazpi proiektu aurkeztu dira bigarren deialdi honetara. Maila oneko lan mordoxka bat aurkeztu omen da, Aingeru Epaltza, Joan Mari Irigoien eta Xabier Mendiguren Elizegi izan dira epaimahaikideen arabera. Bost finalista izendatu zituzten eta hortik hiru lan berezi zituzten. Oinarrietan ageri den sari bakarraren ordeztu bi sari ematea eskatu zuen epaimahaiak eta antolatzaileek 2. sari edo akzesit bat ematea erabaki zuten.



Etxeberriaren proiektuak, fintasun eta zorrotzasunez erakusten du egungo gazteen egunerokotasuna. Osororenak, berriz, gizon-emakumeen arteko harremanen panorama zabal bat erakusten du.

Donostian egin zen sari-banaketa. Andres Arizkorreta CAFeko zuzendaria, Pxti Plazaola Udaleko zinegotzia eta Jose Mari Sors Elkarlanean argitaletzeko kidea izan ziren. Guztiak ere pozik agertu ziren idazle berriak bultzatzeko sortutako beka honek bi urteotan izan duen erantzunagatik.

Aurtengo bi irabazleez gain, iazkoa saria jaso zuen Julen Gabiria galdakaorra ere izan zen sari-banaketan. Bere lana bukatu du eta otsailean argitaratuko omen da liburua.

berri, goizeko taldearena; 9:00etatik 12:00etara.

Bolilloen ikastaroa ere urriaren 5ean hasiko da, arratsaldeko 3,30etatik 6,30etara.

Hurrengo egunean, ortografia eta eskulan ikastaroak hasiko dira: ortografiarena 15:15etik 17:15era eta eskulanena 17:30etik 19:30era.

Urriaren 7an, oleo pinturaren ikastaroa hasiko da; 15:00etatik 18:00etara.

Lorazaintzaren ikastaro

teoriko-praktikoa urriaren 18an hasiko da, 17:30etik 19:30era eta informatikarena, Word programa, urriaren 19an, 9:15etik 11:15era.

Asmubek Oriamendi kalean duen egoitzan eman behar da izena, arratsaldeko 4etatik 6etara. Informazio gehiago ere bertan jasoko duzue.

Azkenik, Sasieta Mankomunitatearen Legazpiko ontzi bereizketa lantegira bisi-taldia egingo da urriaren 22an, arratsaldeko 3,30etan. Geltokitik abiatuko da auto-

Euskal dantzak Aurtzak

Aurtzaka dantza taldeak urriaren 5ean hasiko du ikasturte berria. Euskal dantzak ikasteko aukera izango dute 4 urtetik gorako haur eta gazteek. Informazio gehiagorako telefonoak: 943886806 (Alazne) - 943886878 (Nagore).

busa eta bidaia dohainik izango da.

ZEGAMA

Ikastaro eta tailerrak

Datorren urriaren 14ra arte dago epea Kultur Etxetik antolatutako ikastaro eta tailerretan parte hartu nahi duenak izena eman dezan. Momentuan honako ikastaro hauetan eman daiteke izena: eskulanean tailerra; Internet gela; eta egur tailaketa ikastaroa.

Bestalde, hilabete honetan inkesta bat egiteko asmoa dago, honen helburua herriarren artean zein ikastaro egiteko nahia dagoen jakitea delarik. Ondoren inkesta honen emandako emaitza kontuan hartuko da ikastaroak antolatzerakoan.

Helduen Hezkuntza

Helduen Hezkuntza ere martxan hasi da dagoeneko. Aurtengo Euskarako taldea osatu da, ez ordea ingelera eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako.

Jubilatuen gimnasia

Urriaren 5ean hasiko da jubilatuen gimnasia. Aurtengo astearte eta ostegunero, 10:00etatik 11:30era izango dute.



Donejakue Bidea Goierri eta Euskal Herrian

Donejakue edo Santiago Bidea dela eta, gero eta jende gehiago delarik bide hau egitera animatzen dena, Zegamako Udalak ikastaro bat antolatu zuen bertarako gidak trebatzeko asmotan. Ikastaroan dozena bat lagunek izena eman zuten, hauetatik lau zegamarrak dira eta gainerakoak, Segura, Oñati, Legazpi eta Ordiziatik datoz.

Ikastaroan San Adriango pasabideak izan zuen garrantzia itzela azpimarkatu da behin eta berriz; jakin dugunez, garai batean Gaztelan 7 milioi ardi omen zeuden eta hauen artile guztia San Adriango bortutik pasatzen omen zen, zegokion zerga ordainduta noski. Gaztelarrek Euskal Herriatik burdina eramaten omen zuten. Merkatal bidea izateaz gain, errege bidea ere ba omen zen, bertatik, Borbondarrak ez ezik, Espainiako Errege-Erregina guztiak pasatzen omen ziren, Gaztela eta Frantzia lotzen zuen bidea berau baitzen.

Jubilatuen eguna urriaren 10ean

Jubilatuen eguna aurtengo urriaren 10ean ospatuko da.

Egitaraua:

12:00etan: herriko txistulariekin kalejira.

13:00etan: Meza San Martin

parrokian.

Ondoren, bazkaria bertsolari eta soinu-joleekin. Eta ondoren, sari-banaketa.

Etxe Erre eskean

Asemendi baserriko familiari lagundu nahian, Segura, Zerain, Mutiloa eta Idiazabal-en Etxe Erre eskean ateratzeko asmoa dago, urriaren 2an, larunbatean, goizean zehar. Etxez etxe eskean joango diren pertsonen harrera ona ematea eskertuko genuke.

VI. Kantu festa

Joan den irailaren 26an ospatu zen VI. Kantu festa Orkatz abesbatzaren eskutik. Egunean zehar, umeentzako jokoak, txokolatea nahiz goxokiak izan ziren buruhandi eta erraldoien laguntzarekin. Ondoren 60 bat pertsonen afaldu zuten kiroldegian, kantu giroan. Giro ederra izan genuen egun osoan.

Eduarne Albizu



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



**X LEIHOAK, ATE-
AK eta abar**

**X ESKAILERAK
NEURRIRA**



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

MUTILOA



Azken bi urte hauetan Gor-ka Izagirrenen esku egon den Herriko Ostatuak Zuzendaritza aldaketa du irailaren 24az geroztik. M. Sol Arruabarrena eta Erkuden Agirre arduratuko dira hemendik aurrera lan horretaz. Inaugurazioan jende ugari bildu zen.

Esan digutenez, guztion beharretara egokituko den

aukera eskaini nahirik, eguneroko menua, plater konbinatuak, otartekoak, gosariak eta kartara mokadutxo goxoak egiteko moduan izango gara.

Atsedean eguna astelehenetan izango da. Beste hainbat egitasmo ere badaude Ostatuaren inguruan eta hauen berri ere izango duzue gauzatu ahala.

Ostatuko zuzendaritza berria

Lerro hauen bidez zortetik onena opa nahi diegu proiektu honetan abiatu direnei eta eskerrak orain arte egon direnei.

Gripearen aurkako txertaketa

Urtero sasoi honetan izan ohi da gripearen aurkako txertoa jartzeko garaia. Juan Carlos Alvarez medikuak bidalitako mezuak esaten duenez, irailaren 20an hasi zen kanpaina hau. Beraz, badakizue nahi duzuen guztiok horretarako aukera duzue kontsultara gerturatuz.

Kontsulta orduak honako hauek dira: astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, 9:00etatik 10:45era; asteazkenetan 10:00etatik 10:45era eta egunero 13:45etik 14:30era.

Ziklomotorren matrikulazioa

2000. urteko urtarrilaren 28tik aurrera, ziklomotorren matrikulazioa derrigorrezkoa izango da. Lan hori erraztu nahirik, Udaletxean entregatu daiteke trafikora bidaltzeko dokumentazioa. 1999ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar da dokumentazioa Udaletxeko bulegoetan.

Bataioa

Datorren igandean, urriak 3, eguerdiko 12,30etako elizkizunean Etxarriko Mateo eta Edurneren seme den Beñat txikiaren bataioa izango da. Egun eder bat pasa dezazuela guztiok eta zorionak.

Iñaki Ugaldé

ITSASONDO

Harrobia zulatzeko proiektua eztabaidagai

Payer Ingenieritza enpresak Zubin aldean kokatua dagoen harrobia zulatzeko proiektua aurkeztu zuen duela zenbait hilabete Udaletxean. Ingenieritza enpresa honen asmoa aipatu harrobitik harria ateratzea da. Harrobia zulatzen hasi aurretik baimena eskatu zion aipatu enpresak Udalari. Payer enpresaren asmoa aztertzen aritu da Udala aditu eta erakunde ezberdinen iritzia kontuan hartuz. Baina proiektua burutu nahi duen ingenieritza enpresari azken erantzuna eman aurretik, itsasondotarren iritzia zein

den jakitea oso garrantzitsutzat jotzen du Udalak, herriarrei zuzenean eragingo dien gaia baita.

Proiektuaren inguruko informazioa zabaldu eta herriarrek Payer enpresak egin nahi duen lana ezagutu dezaten, lanaren planoak ikusgai jarri dira udaletxean, urriaren 1era bitartean. Horrez gain, itsasondotarrek aipatu proiektuaren inguruko iritzia emateko aukera izan dezaten, Udalak herri batzarra deitu du urriaren 4an arratsaldeko 8etan, Udaletxeko areto nagusian.

Jubilatuen eguna

Pasa den irailaren 19an jubilatuak beren eguna ospatu zuten. Herriko txistularien goiz eresiarekin eman zitzaion hasiera jubilatuaren egunari. Jarraian, igandeko meza nagusiaz gain, herriko abesbatza eta txistulariek eskainitako kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten herriko helduenek. Egunari amaiera emateko, Nautiko jatetxean bildu ziren jubilatu guztiak bazkarri ederra dastatzeko asmoz. Bazkalostean urtero opari bana eman ohi zaie herriko helduenei; aurtengo honetan

Ximona Ibarguren eta Antero Larrañagak jaso dute saria.

Ikastaroak

Udaletxeko Kultur batzordeak soinketa eta sendabellarrei buruzko ikastaroak antolatu ditu. Aipatu ikastaroetan parte hartu nahi dutenek dagoeneko izena eman dezakete Udaletxean bertan. Gerora zehaztuko dira zein izango diren ikastaro horien ordutegi eta egunak.

Nagore Etxeberria

'Upeletan erronka': dantza, bertso eta trikiti ikuskizuna Zaldibian

Dantza, bertso eta trikitia uztartuz 'Upeletan erronka' ikuskizun berria aurkeztuko da Zaldibian, Santa Fe jaien barruan. Kimetz Larrañaga, Oier Imaz, Jon Maia eta Iban Agote dantzariak; Andoni Larrañaga eta Jon Anzorril trikitilariak; eta Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak dira protagonistak. Estreinaldi ofiziala beranduago egingo badute ere, Zaldibian lehenengo proba egingo dute, urriaren 7an, gaueko 10etan.

Sagardotegi batean kokatuko da historia. Dantza, trikiti eta bertsoa, hiruak aldi berean, uztartuko dituzte. Upelen artean erronka sortzen saiatuko dira, herri baikoitzean, herriko gaiak edo 'pikeak' planteatuz. Jendeak parte hartzea bultzatu nahi dute. Ordu bete pasatxo saioa izango da.

Euskal dantzak ingurugiro berrira egokitu nahi dituzte. Modu koreografiko batean montatu dute, euskal dantzak eta euskal musika erabiliz. Egokiena antzokietarako izango delakoan dau-



Argazkian Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria falta da.

de, jendeak bertsoaren bidez ildo jarraitu behar izango duelako. Baina plazen aukera ez dute baztertzen. Zaldibian non egingo duten ez dago ziur, egural-

diaren izango baita. Negu alderako prestatu dute ikuskizuna, dantzariak eta oro har trikitilariak ere, etenaldi izaten baitute.

'Upeletan erronka' ikus-

kizunarekin, publiko ezberdinak batu nahi dituzte, hiru munduak hurbilazteko helburuarekin.

Lau dantzariak Laxok taldea osatzen dute eta euren ekimenez sortu da proiektua. Laxok hainbat musika talderen kontzertutan dantza ikuskizunak eman ditu, Alboka eta Alaitz eta Maiderrekin besteak beste, eta jendearen harrera ona izaten dela adierazi digute. Garai batean trikitiarekin gertatu zen bezala, dantza esparru ezberdinetan sartzeko probak egiten dira dantzariak, azken urteetan dantza goraka doala ikusirik.



Herrikoen ikuskizuna urriaren 9an

Kataluniara joateko Zaldibiako dantza taldeak eta herriko abeslari batzuk emanikizun bat prestatu zuten.

Emaitzarekin gustora geratu eta herriko festetan ere ematea bururatu zitzaion.

Gipuzkoako betiko dantzak eta euskal abeslarien abestiak dira nagusienak.

Idoia Zoilok asmatutako koreografia bat ere badago, 'Sorgin gaua' du izena. Hor zati batean abesti bat dantzatzeko dute eta bigarren zatian Kepa Junkeraren disko arin-arin bat. Ordiziako Jakintza dantza taldea gonbidatu dute beraiek asmatutako koreografia bat dantzatzeko.

Iztueta dantza taldekoek parte hartzen dute emanaldian. Abeslariak Aloña Jauregi, Amaia Sainz eta Saroi Jauregi dira. Gorosti eta Akaitz txalapatriak, txistulariak eta Aitzol eta Urko trikitilariak ere emankizunean parte hartuko dute.

GESTORIA Biok


ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

BEASAIN



Jaunartzea Zaldibian

1961-62 urteetan jaiotako zaldibitarak dira argazkikoak, beraien jaunartze egunean. Argazkia, bertan agertzen direnen izenik gabe jaso dugunez, irakurleen lana izango da zaldibitar haur hauek ezagutzea.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZO TRATAMENDUA

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

GANBO, S.A.



ANDERE
lenceria

☎ 943 88 35 12-16 Faxe: 943 88 35 12
Elbarrena Auzoa, 2 ZALDIBIA

ILLATI TABERNA

- Mondeju pintxo eta etxeko solomoa
- Ogitarkekoak

Festak ondo pasa

Santa Fe ☎ 943 88 31 05 ZALDIBIA

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolia, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 BEASAIN

LEIAR

KRISTALDEGIA




ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



JOXEPANE HERRI OSTATUA

Jaiak ospatu
Ostatuko janaria dastatu

☎ 943 88 20 47
Albisu Etxea ZALDIBIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA




EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



EXPRESS COLOR

DOMINGO UNANUE, 1 - ORDIZIA
GELTOKIAREN PAREAN
(LEHEN FOTO SISTEMA ORDIZIA)

ORDUBETEKO ERREBELATU ZERBITZUA
24 ORDUTAN ERREBELATU ZERBITZUA
(BETI KODAK ROYAL PAPEREN ETA KODAK KIMIKOETAN)
KARNETeko ARGAZKIAK MINUTU BATEAN
DIPOSITIBEN ERREBELATUA
ARGAZKIEN KOPIAK NEGATIBORIK GABE

EPSON INPRESORAK
EPSON INPRESORENTZAKO TINTA ETA PAPERAK
PLANO ETA DIPOSITIBEN ESKANERRAK

KAMARA TRINKO ETA REFLEXAK
PROIEKTORE ETA PRISMATIKOAK
OSAGARRI UGARI